


Euskal komikiaren aitzindaria, **Biktoriano Iraola** dugu. Sortzez pasaiatarra, bere bizitza gehiena Donostian eman bazuen ere. Nobela, poesia eta antzerkia idatzi zuen baina inprimatzailea zen lanbidez. Donostiako Legazpi kaleko bosgarrenean izan zuen bizilekua eta baita lantegia ere.




Bere lehen irudiak **El Thun Thun - Semanario Koshkero** (1894) aldizkariarentzat marraztu zituen XIX. azken hamarkadan eta baita *Baserritarra: probintziako ganaduen terramako albistaria* hamabostekariarentzat 1907. urtetik aurrera.

El Thun thun aldizkarian 1894ko abuztuaren 5ean agertu zen marrazki tira, hau da gaur egun aditu gehienentzat lehen euskal komikiaren adibide garbia.

Hemen irudiak kateatu egiten dira istorio labur bat osatzeko, globoak oraindik agertzen ez diren arren. Marrazki-istorio bat da, azken batean hau dugu komiki baten ezaugarri nagusia.

Wilhelm Busch ilustratzaile alemaniarrek 1864 urtean sortu zituen Max eta Moritz pertsonaiak. Ume bihurrien itzal luzea komikigintzaren historian asko luzatuko da. Estatu Batuetan The Katzenjammer Kid, Espainian Zipi eta Zape etab. Euskal komikietan ere aztarna utziko dute *Euzko Deya* egunkariak 1918. urtean Teles eta Niko seriea sortzen duenean.



Egilearen izena ez da inon aipatzen baina berak dakartza lehenengoz gurera komikigintza modernoaren ezaugarriak: globoak, onomatopeiak eta marra zinetikoak.



Euskarazko lehen komiki aldizkaria Primo de Riveraren diktadura garaian sortu zen. Donostiako Argia aldizkarikoen sostenguarekin jaio zen, baina hala ere oso bizitza laburra izan zuen.



Arabian dagoen Musitu herriko semea zen bultzatzaile nagusia, Abdon Gonzalez de Alaiza. Aldizkaria sortzeko laguntza Madrilen arkitektura ikasten zeunden euskaldun talde batean aurkitu zuen. Zoritxarrez Musitura itzuli eta bi hilabetez gaixo egon ondoren hil egin zen. Bere lagunek, Txistu komikiaren proiektuari aurre egiteko "Alaiza saria" jarri zuten martxan 1926ko urrian. 1927ko urtarrilean, agertu zen lehen zenbakia. Arazo ekonomikoak zirela medio, urte berean itxi zen.




Diseinu grafikoaren urrezko aroa

1920-1936

Diseinu grafikoaren iraultza eta loraldia batez ere pasadan mendeko bigarren hamarkadan eman zen. Euskal grafikagintzaren dinamikotasunak bertokoak zein kanpoko artistak erakarriko ditu: **Paul Tillac, Pedro Antequera, Rafael Penagos...**



Aldizkako euskal prentsa idatzia da, hala ere, komikigintzaren erakustoki nagusia. Publizitate irudiak, karikaturak eta komiki istorioak azkenik gero eta sarriago agertuko dira, argazkigintzaren konpetentzia nabarmena izan arren. Donostiako **Argiak** 1925 eta 1927 bitartean **John Zabalo** “Txiki” eta haren arreba **Ignaciaren**, istorioak argitaratuko ditu. Euskal Herrian lehen marrazkilari profesionala moduan bere lanak sinatzeko ausardia izan zuen lehen emakumea izan zen aurrenekoz Argiaren 1925eko egutegian “**Nor-Nai**” goitizenez sinatu zuenetik.



Iruñeko beste “Argiak”, kaputxinoen **Zeruko Argiak**, maiztasun irregularrez komiki istoriotxoak argitaratu zituen ere. **Otermin**, zenbaitetan «Arrayoztarra» ezizena erabiltzen zuena da gehien argitaratu zuena. Beste kolaboratzaile batzuek nahiago izango zuten, ordea, anonimo jarraitzea.

Euzko astekariak **Gazteluren** lau istoriotxo argitaratuko ditu 30 hamarkadan: Peru Malluki baserritarra da berak sortutako pertsonaia. **Jagi Jagi** aldizkarian **Jose Maria Saraleguik** («Sagi») zenbait istorio argitaratuko zituen ere.



Oraingoan euskaltzale eta kultur eragile handi batek martxan jarri zuen Poxpolin proiektua. **Isaka Lopez Mendizabalek**. Gaztelera argitaratzen zen TBO aldizkariaren arrakastan erreparatuz (220000 aleko tiradara izatera heldu zen 1935 urtean), eredia euskal merkatura egokitu nahi izan zuen. TBO komikia kaleratzen zuen argitaletxera jo eta beharrezko baimenak lortu zituen komiki-aldizkariko marrazkiak Poxpolinen erabiltzeko; testuak euskaratu eta bertako kutsua ematearren, Txiki (John Zabalo) ilustratzaileak egindako orri berriekin aberastu zuen. Tinta bitara inprimatutako 8 orrialdeko koadernoak zen eta

Txikiz aparte TBO etxeko beste hainbat autore sinatu zituzten bertako istorioak **Opisso, Urda, Serra Massan, Cuvillier, Forton...** 1936ko gerrak betirako itxi zuen.



1955-1956 tartean Estatu Batuetan jatorria zuten hainbat komiki argitaratu ziran euskaraz sortu berri zen Anaitasuna aldizkarian.

Aita Imanol Berriatua elantxobetarrak sortu zuen aldizkaria 1953. urtean eta hasieratik frantziskotarren ardurapean egon zen. Bizkaierazko eranskin gisa gipuzkoako frantziskotarren euskarazko orriari lotuta jaio zen. Bihilabetekaria lehendabizi, hilabetekaria geroago, handik gutxira, edukiaren parte handi bat komikiekin hornitu zen. Zortzi orrialdeko aldizkarietan, lau gorde ziran ilustrazioetarako.

1955-1956 tarteko zenbakietan gertatu zen hau. King Features Syndicate etxeko pertsonaien istorioak agertu ziran (eskubide jabeen baimenik gabe seguraski). Globoen testuak eskuz atontzen ziran, bizkaiera bizi eta ulergarri batean.

Erljioaren estalpean agertu zen aldizkari batentzat apustu ausarta eta berritzailea, duda barik, orduko euskal kultura estuarentzat nazioartetik heldutako haize fresko berri bat.



Pan-Pin hilabetekaria Zeruko Argiaren eranskina bezala sortu zen 1960 urteko otsailean. Eragilea nagusia **Joseph Camino** arnegiarra izan zen, garai hartan Euskualzaleen Biltzarreko idazkaria eta L'Enfance du Pays Basqueko kapilaua zena. Iparraldean euskal umeei zuzendutako ume aldizkari bat sortzeko ahaleaginean huts egin ondoren, Pierre Charrittonen laguntzaren bila joan eta honek Bonifacio de Beizama Hondarribiko Kaputxinoen komentuko buruarekin harremanetan jarri zuen. Garai hartan Bonifacio (**Kaetano Ezeiza** jatorrizko izenez) Zeruko Argia aldizkariako zuzendaria zen eta proiektua gogoz hartu zuen. Bonifacio eta Joseph izan ziran beraz Pan-Pin proiektuaren lehen eragile eta zuzendariak.



Gipuzkera eta nafar-lapurterazko edizio bana argitaratu zen Pirinioetako alde bietara zabaltzeko, eta bizkaieraz idatzitako orri bat gehigarri bezala agertu zen gutxira aldizkarian. Pan-Pin Hondarrabin inprimatu zen lehenengoz “Los hijos de Alvarez Iraola” etxean.

1962an Joseph Camino aldizkaria utzi beharrean aurkitzen da eta ez du Panpinen berri gehiagorik izango. Baina aldizkariak bere martxa segituko du Euskal Herriko hegoaldean. Bizkaierazko eranskin bat ere gehitzen zaio. Pariseko materialak argitaratu beharrean bertoko irudigile berriak agertuko dira aldizkarian: **Yulen** (Julian Zabaleta Barrenetxea) eta **Leta** (Juan Antonio Letamendia).



Julen Zabaletak euren irudiak Donostiako Aranzadi elkarteko egoitzara eramaten zituztela azaltzen du. Garai horretan, aldizkariaren inguruko ardurekin izen berri bat agertuko zaigu: Aranzadi elkarteko kidea zen **Jesus Ramon Elozegi** tolosarra.



1964ko azaroan Pan-Pin aldizkaria berriz ere itxuraz aldatuko da. Yulen eta Leta irudigileak aldizkaritik joan eta **Bruguera** etxeko pertsonaiak agertuko dira azalean. *Txorizo ta Txistorra* izenarekin “Mortadelo y Filemón”, Fernando Ibañezek 1958an sortu zituen pertsonaiak lehenengoz euskaratuko dira.



Zeruko Argiaren gehigarri bezala aldizkaria beti ere Kaputxinoen esku mantentzen da, eta aldi honetan Guillermo de Beizama izendatuko dute, bai Zeruko Argia eta bai Pan-Pinen buru (jatorrizko izenenez **Agustín Ezeiza** dugu, aurreko zuzendariaren anaia).

Beti zailtasunez, bizirik mantendu zen aldizkaria, aurrera eramateko hainbat lan boluntario batu zen auzolanean haren inguruan. Aldi batean Iñaki Beobideren Donostiako alde zaharreko etxean ere egiten zuten aldizkaria, Karmele Esnalek Argia aldizkariari kontatzen duenaren arabera.


1968an itxi zen Pan-Pin.



Remi Herge (1907-1983) komikigile belgikarrak 24 album argitaratu zituen 1930etik 1976era; azkena *Tintin eta Alpha-Art* amaitu gabe utzi zuen. 1972an, **Etor** argitaletxea (Bilboko Ediciones Mensajeroen barnean garai hartan) izan zen Tintin euskaratzen lehena. Hiru obra eman zituen argitara: **Tornasol Arazoa** (1956) **Ottokar-en erregemakila**



(1939) eta **Tintin Ameriketara** (1932). Besteak beste, Mikel Atxaga eta Jesus Gaztañaga

aritu ziren itzultzaile gisa. Tintinen bilduma osoa euskaratzeko dema 1985tik aurrera eraman zuen Elkar argitaletxeak. Joxe Mari Azurmendik itzuli zituen 1990 arte zenbaki gehienak.





1977. urtean Jose Antonio Retolazak haurrentzako “Kili-kili” tebeoa plazaratu zuen. Bertan *Asterix*, *Mortadelo ta Filemon*, *Okel leize-gizon*, *Zipi ta Zape*, *Jilda ahiztak*, *Txabi ta Txibi*, *Errobin eta “Sheriff”* eta beste hainbat pertsonai agertzen zirelarik. Kili-kili aldizkariak 2002 urterarte iraun zuen.

Baina Kili-kili komiki aldizkariaren aurrekari zuzena 60 hamarkadan sortu zen. Lehenengoz, 1966an, ezkutuan multikopistaz ateratako aldian-aldiango argitalpen moduan. 1969ko azaroan agintariek debekatu egin zuten. Hurrengo urtetan haurrak alfabetatzeko materiala sortu eta banatzeari ekin zion **Euskerazaleak** elkartearen laguntzaz. Horrela, Lan eta lan, Ekin eta ekin eta Jarrai koadernoak plazaratuz hiru maila ezberdinetarako. Koaderno hauen alde grafikoa Lander Gallastegi arkitektoak landu zuen. Laranja, berdea eta beltza erabiliz, irudi sinpleak eta indartsuak sortu zituen marfil koloreko paper gainean.



Euskal Herriko komiki aldizkari beteteranoena izan zena, hogeita hamahiru urtez hilabetero **Erein** argitaletxearen eskutik plazaratu zen (1977-2008). “Euskarazko komiki bat sortzeko ideia ikastolen mundutik etorri zen, ikastolak euskaraz irakurtzeko gogoia bultzatuko zuen zerbaiten bila baitzebiltzan” zioen Jose Lizundiak, 1976-1999 bitartean Erein Argitaletxeko zuzendaria izan zenak. Ume eta gaztetxoei zuzendutako aldizkariak etapa desberdinak igaro zituen. **Julen Lizundia**, **Anjel Lertxundi**, **Antton Olariaga** eta **Jon Zabaleta** ibili ziren hasiera batean aldizkariari itxura ematen.



Hizkuntza erabilgarria eta erabilia izan zedin Ipurbeltzek bere ibilbidean mantendu zuen ardura nagusietako bat izan zen. Adibidez hikako hizkera bizia ezarriz zenbait pertsonaiari, edo euskal onomatopeiak jatorrak erabiliz, edo eguneroko egoera errealak erakutsiz... euskara jolas hizkuntza ere bazela agerian utzirik.

Ikusager

1979

Ernesto Santolaya editoreak argitaletxea 1976an sortu eta 1979 urtetik aurrera liburuez gain, komikiak argitaratzeari ekin zion. “*Kondairako irudiak*” izeneko bilduma dotorea argitaratu zuen 80 hamarkadan zehar, argentinar eta espainiar komiki egileak tartekatuz. Antonio Hernández Palacios marrazkilariaren “*Eloy, askoren arteko bat*” zabaldu zuen bilduma eta horren ondotik beste hogeit hamar titulu inguru etorriko ziren. 1985 urtean Antonio Altarribak zuzendaritza artistikoari heldu zion.




Ttarttalo

1984

80. hamarkadaren erdi aldera argitaletxe donostiarrak album formatuan (29 X 21 zm) hainbat komiki argitaratu zituen. Winsor McCay bezalako egile klasikoak, euskal ilustratzaile eta gidoigileen lanekin tartekatu zituen ttarttalo berezia bilduman. Azken hauen artean Gregorio Muro Harriet, Francisco Fructuoso, Daniel Redondo edo Jose Ibarrola.

Nemo Txikiren zoragarritzko istorioak 1984-1988 tartean argitaratu ziran.



HABE, Eusko Jaurlaritzak euskalduntze eta alfabetatzerako sortutako institutuak jarri zuen abian Habeko Mik aldizkaria. Euskara ikasten ari zirenei begira egin nahi izan zen aldizkaria, tresna didaktiko moduan, baina bide batez euskal komikia indartzea ere hartu zuen helburutzat.

Erakunde ofizial baten menpe egoteak aldizkariari egonkortasuna bermatzen zion, agian horregatik ez zen gehiegi banaketaren alorra zaindu. Díaz de Guereñuk, aldizkariaren historia liburu batean sakonki aztertu duen ikertzaileak, ohiko komiki-irakurleen artean ere aski ezezaguna izan zela uste du.



Hala eta guztiz ere, euskal komikigintzaren alorrean guztiz emankorra izan zen Habeko Mikek ereindako hazia. Ia hamarkada oso bat betez (1982-1991), aldizkariaz aparte hainbat album argitaratu zituen ere, guztira 18. Bertan, eskarmentu profesional dezente zuten Euskal Herriko egileek plazaratu zituzten bere lanak, baita autore berrien lehen plaza ere izan zen zenbaitetan. Besteak beste, Astrain, Berzosa, Entrialgo, Fructuoso, Garay, Harriet (Gregorio Muro), Hernandez Landazabal, Ibarrola, Mata, Mendi, Mina, Oses, Redondo, Resano, Edorta Jimenez, Alberto Uribarri, Valverde... bezalako egile bikainak jardun ziren.

Napartheid

1988


Nafarroan euskararen ofizialtasuna arautzen duen legea salatzeko Napartheid aldizkaria sortu zuen komikigile talde batek. Hastapenean kolektiboak bere indar guztiak euskara hutsean eginiko komiki fanxin baten argitalpenean eman zituen. Ale bakoitzean aktualitatezko gai bat jorratzen da, beti ikuspuntu kritikoarekin, komunikabideetan aurkitzen ez den errealitatearen berri eman nahian. Denborarekin egitasmoa sendotzen joan zen tirada 3.000 aletara iritsiz. Hala ere, argitalpen amateurra izaki, baditu urteetan bere gora beherak.




Aldizkariari lotua, formatu txikiagoan, **Gato Bazka** “Napartheideen separatha” argitaratu zen noizbehinka eta, egunkari formatu handian, **Stok Armairu** Mikel Laboaren omenezko haren kantetan oinarritutako komiki istorio bilduma.

Globho

1984




Bertako zein inguruetako egileen lanak argitaratzeko helburuarekin Ondarroako Luterl komikizaleen elkarteak sortutako fanxinea da **Globho**. Ez zen erregularotasuna beti mantendu, hasieran 4 edo 6 zenbaki argitaratzen zituzten urtero. **Globhito**, Luterl taldeak oraindik plazaratzen duen informazio buletina da eta.



Erein argitaletxea euskal komikigintzak izan duen zutabe sendoenetariko bat izan da. Ipurbeltz aldizkariaren sortzaile eta sustatzaile handiena izateaz aparte, kasu batzuetan nobelagile eta ilustratzaileen topalekua ere izan zen. **Hamaseigarrenean** aidanez adibidea kasu, non Antton Olariagak **Anju Lertxundiren** eleberri ospetsua binetetara eraman zuen. Gaur egun hainbatetan aipatzen den eleberri grafikoaren parametroetara ezin baino hobeto egokitzen da lana.

Antton Olariagak bere pertsonaiarik ezagunena marrazten 10 urte baino gehiago zeramatzan Ereinek, lehenengoz eta azkenez, **Zakilixut** pertsonaiaren istorio luzeak argitaratzea erabaki zituenean. Eguneroko zintetatik kanpo, pertsonaiak nortasun konplexuago bat garatzen du estetikoki ezin ederragoa den album baten zehar.



Nobela grafikoaren bide bihurriak



Terminoak berak asmatua ez izan arren, *Will Eisner* komikigile eta negozio gizon azkarrak “*A Contract with God*” liburuaren azalean erabili zuen lehenengoz “**Eleberri Grafikoa**”ren etiketa. Literatur mailako prestigioa lortzea eta irakurlego helduago bat komikigintzara erakartzea izan zuen helburu eta aurrerantzean terminoak izan zuen arrakasta ikusita bete betean asmatu zuela dirudi.

Nobela grafikoaren izaera aditu eta zaletuen artean sarri eztabaida iturria izan bada ere, oro har, bere ezaugarriak edukiekin eta komikiaren formatuarekin zerikusira dutela esan dezakegu. Bertan kontatzen den istorioa, bakarra normalean, zabaleran zein edukietan era librean azaltzen da. Publiko heldu bateri zuzendua, literaturaren hainbat errekurtso konpartituz. Formatuari dagokionez, gehienek, nobela liburuen neurriak imitatzen ditu, ume istoriotxoak kontatzen dituen album klasikoengandik urrundu nahiaz.

Gurean, lehen “nobela-grafikogile” adibiderik garbiena Antton Olariaga izan zen, 1985 urtean “Hamaseigarrenean aidanez” argitara eman zuenean. “*Aspaldidanik nian helduentzako komikia egiteko asmoa*” Argiari eskainitako elkarrizketa batean erran zuenez.

Ondorengo hamarkadetan Nobela grafikoa hedatu eta zabaldu besterik ez da egin, euskal produkzioan ere nolabaiteko urratsa utziz, *Astiberri*, *Txalaparta* edo *Alberdania* bezalako argitaletxeen bitartez.

2005ean argitaratu zuen *Euskal Herriko Ikastolen konfederazioak* lehen zenbakia eta hiru hilabetekaria bezala mantendu da ordutik hona. Gaur euskaraz modu erregularrean argitaratzen den komiki-aldizkari bakarra dugu.

Bere esparru nagusia irakurle gazteena da, batez ere 12 urtetik 18ra bitartekoa. Jaio zenetik **Dani Fanok** zuzentzen du aldizkaria eta bere orrialdeetan **Asisko Urmeneta**, **Iñaki G. Holgado**, **Julen Rivas**, **Zaldi Eroa**, **Lope**, **Guillermo Gonzalez**, **Sanvi**, **Alex Orbe** edo **Adur Larrea** bezalako ilustratzaile handiak argitaratu dute. Baita **Iban Zaldúa**, **Harkaitz Cano**, **Joxean Muñoz**, **Arantza Iturbe**, **Pako Aristi**, **Eider Rodriguez** edo **Unai Iturriagaren** mailako gidoilariak ere. Aldizkariaz aparte urtero album bat argitaratuz euskal komikigintzak daukan faro bakarrenetariko bat dugu.



Zintak


Euskal Herrian, idatzizko prentsa izan da historian zehar komikigintzak izan duen euskarririk printzipalena. Horrela jaio zen **Biktoriano Iraolaren** garaian, bere lehen tirak Donostiako El thun thun aldizkarian argitaratu zituenean, eta horrela mantentzen da gaur ere.



Euskal prentsa orokorra edo espezifikoa miatuz aurkituko ditugu publiko zabalarentzat ezezagun diren hainbat egile. Batez ere, herririk herri edo eskualdeka argitaratzen den tokiko prentsa da produkzio sakabanatu baina indartsu baten ekoizlea. Normalean aldizkari hauen zabalkundea oso mugatua izaten da eta komikigile on askoren ospeak ez du gaindituko eskualdearen muga estuak.



Azken urteetako digitalizazio joerek zerbait lagundu duten arren, gaizki zabaltzen den komiki produkzio honen jarraipena egitea ez da batere erraza. *Morkots, Tozzi, David Parages, Iosu Mitxelena, Axi, Jose Antonio Azpilikueta...* armada honetako izen propio batzuk baino ez dira.





Gurean Saure arabarra izan da digitalean baino ez, argitaratzea erabaki duen lehen etxea. Bidea zabalik dago aspaldidanik, hala ere... paperetik digitalerako aldakuntza nahiko motel doala esan dezakegu. Baina ez gure artean bakarrik. Adibidez, komikien alorrean eta mundu mailan printzipalenetariko den merkatu franko-belgikarrean argitaratzaile gehienek paperarekin segitzen dute. Arrazoa? Alde batetik konpondu gabeko arazoak dauzkatelako editoreek oraindik, bestalde, komikizaleen gustuak hor daude, gehienak bildumazaleak izaten jarraitzen dute eta paperezko alea

eskuetan izatea ezinbestekotzat jotzen dute...

Bestalde sarean barreiaturik eta zuzenean blogetan argitaratzen duten euskal komikigileen kopurua gora doa. Modu errazean, inongo baldintza eta bitartekaririk gabe norberaren komikiak sarera igotzea aukera ona izan daiteke.

Komiki blogeroek euren jaialdiak ere antolatzen dituzte. Sonatuena 2005.

urtetik Parisen antolatzen den *Festiblog*, “*Festival de BD numérique*”

